

KALEJIRA

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Gure enpresak hainbat baliabide mota ditu, eta hauek ezinbestekoak dira gure jarduerak aurrera eramateko. Baliabide mota horiek lau kategoriatan banatzen dira: ekonomiko-finantziarioak, giza-baliabideak, intelektualak eta materialak.

Ekonomiko-finantziarioak, diruarekin eta finantzaketarekin zerikusia duten baliabideak dira. Adibidez, udaletik jasotzen ditugun diru-laguntzak edo inbertsore batzuen ekarpenak izango dira. Baliabide hauek oso garrantzitsuak dira gure enpresaren egonkortasuna eta hazkundera bermatzeko.

Giza-baliabideak pertsonak dira, hau da, gure langileak eta haien trebetasunak. Gure ongizate enpresan ere giza-baliabideak oso garrantzitsuak dira, aholkularitza saioak ematen ditugulako eta bezeroekin kontaktu zuzena dugulako.

Kontratatuak ditugun espezializatuak, esperientzia, gaitasun eta jakintza edukiko duten profesionalak izango dira. Kontratatuak ditugun espezializatuen formakuntza garrantzitsua da, gure bezeroei eskaintzen ditugun zerbitzu eta ongizatea emateko.

Materialak dira fisikoki ukigarriak diren baliabideak, hala nola, lokala, materiala eta webgunea. Gure enpresan, lokal bat alokatuko dugu gure jarduerak aurrera eramateko. Materialen aldetik, eskaintzen ditugun zerbitzuak egin ahal izateko materiala erosi beharko dugu.

Baliabide horiek guztiek gure enpresaren balio proposamena osatzen dute. Hornitzaile batek, aldiz, gure balio proposamenaren sorkuntza, emate, komunikazio edo hobekuntza lortzeko baliabide materialak edo zerbitzuak emango dizkigu.

Funtsezko baliabide horiek hiru modutan lor ditzakegu: gure jabetzan izango ditugu edo funtsezko bazkideetatik lortuko ditugu. Gure ongizate enpresaren funtsezko baliabideak, ekonomiko-finantziarioak, intelektualak eta giza-baliabideak dira. Adibidez, intelektualak dira gure kirol material marka eta giza-baliabideak aholkularitza saioak eta bezeroekin dugun harreman zuzena dira. Funtsezko baliabide batzuk alokatuko ditugu, adibidez, lokala. Beste baliabide batzuk aldiz, funtsezko bazkideetatik lortuko ditugu. Bazkideek gure zerbitzuengatik ordaintzen duten dirua, etorkizunerako inbertsioentzat eta enpresa handitzeko erabiliko dugu.

Horrela, gure baliabide guztiek elkarrekin lan egiten dute gure enpresaren helburuak lortzeko eta gure balio proposamena hobetzeko.